

Iragan astean Felix Ibargutxik Olatz Zugastiri egindako elkarrizketa irakurri nuen. Aizturak erabili eta karpetan gorde nik.

Hona hemen zati batzuk:

“Sentipen asko izan ditut, amorruzkoak eta minberak ere bai. Ikusi baitut euskal gizarteak zentzu askotan atzera egin duela”.

“Gurearekin ondo egon beharrean, konplexuak areagotu egin dira. Adibidez, justifikatzen ditugu gure gauzak unibertsalak ere badirela esanez. Tigrea, adibidez, zer da? Unibertsala? Tigrea da, besterik gabe”.

“Gu galtzaile izan gara beti, eta erakutsi diguten historia ez da egiazkoa”.

Gure gauzak unibertsalizatu omen dituenaren esaldia etorri zitzaidan burura, orain urtebete RNEn entzuna musika programa batean:

“Poder cantar en euskera es un privilegio”

Pena edukiko du Maichael Jaksonek, euskaraz grabatu gabe hil izana.

Horrela gabiltza munduan barrena, gure burua bitxikeria bakan eta errepikagaitza bezala saltzen: prostituzioan.

Atzeraka goaz, bai: altxor etniko bat bihurtu gara.

Gure izatetasuna justifikatu behar hau, parametro ustez unibertsaletara makurtu behar hau programatua dago. Unibersalizatzaile horren proiektu probintzianoak Kultura Sailaren laguntza zabala eta gizona ukan du. Euskararen Normaltasunerako Zuzendaritzak gure musikaren inoizko proiekturik interesgarriena iritzi zion nazioarteko izarrak eta izartxoak euskaraz kantari jartzeari, gure kulturaren heriotza antzeztuz: euskarak ez dauka ahotsik, eros ditzagun hiztun batzuk munduan.

Parodia bat, euskaldunek berek onartua.

Hainbestearino gaude mutu non, Mikel Laboa bizirik zela, Wikipedian zeukan gaztelaniazko sarreran “Cantante español que también canta en euskera” baitzuen

jartzen. Hil zelarik, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburuak “Ez dakigu zer, baina omenaldi bat egingo diogu” deklaratu zuen. Orain plaka bat dauka hemen, Donostia kantuzalean. Mikel Laboari “artista” esaten zaio bertan, laudorio baztertzailean.

Euskararen erahilketa programatua dago, kanpotik bezala barrendik.

Hainbat eragilek eta teknikariek adostuak omen dira iaz ezagutu genuen Eusko Jaurlaritzaren *XXI. mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak*.

“Asimetria baterantz goaz, beraz, gizarte elebidun baten helburua posible izango bada, eta asimetria hori bai geografikoa eta baita funtzionala ere izango da. Garbi adierazi dezagun denok –ez da hori ukatzerainoko itsumenik inon ezagutzen– gure baitan garbi dakiguna: helburua ez da toki edo alor batean egiten dena bestean ere modu mimetikoan errepikatzea, baldintzei eta errealitateari muzin eginez, baizik eta toki edota alor bakoitzak eman dezakeena eman dezan lortzea, asmoz eta jakitez, ez gutxiago baina ezta gehiago ere”.

Ez goaz ematera eta aberastera, alor bakoitzak eman diezagukeena hartzera baino “asmoz eta jakitez”, alegia, jakinduriarik zuhurrenarekin, erran nahi baita asmo handirik gabe. Asimetria baterantz goaz, hots, ez goaz inora, leku berean geratuko gara (onenean), asimetriaren iduri murriztua geu izanen garelako. Asimetria hori funtzionala eta geografikoa izanen da: nork esan du zonifikatzaile bakarra Nafarroako Gobernua dela?

“Gaurko errealitatearen aurreak aski modu garbian erakusten digu atzea nola dantzatu: euskarak eta gaztelaniak funtzio ezberdinak bereganatuko dituzte, nolabaiteko banaketa funtzional baten arabera, eta beste hainbeste gertatuko da euskarentzat erreklamatzeko ditugun lurraldeei dagokienez: ez da guztietan, inondik inora ere, hiztun, erabiltzaile eta gaitasun maila bera erdietsiko”.

Hizkuntza bat bestearen zerbitzuan jartzeko tresneria dugu elebitasun ofiziala, urteetan nazionalistek zuzenduriko hizkuntza politikak sortua. Eta teorizatua, adostua eta planifikatua dago erretorikak ematen duen moralkeria motzaren argudioak lagun: “helburua posible izango bada”, “denok”, “gure baitan dakiguna”, “ez da inon ezagutzen”, “hori ukatzerainoko itsumenik”, “garbi adierazi dezagun”, “aurreak erakusten digu atzea nola dantzatu”, “aski modu garbian”, “inondik inora ere ez..”.

Argudiorik ezean, onak dira baieztapen kategorikoak.

Joaquim Molas irakasleak 1974an sorturiko *Els Marges, Revista de llengua i literatura* aldizkari katalan ezagunaren hitzak ditugu 2009ko udazkenean: XXI. mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriok euskararen subordinazioaren goramena dira hasieratik kaburaino.

Alabaina, Moreno Cabrera irakasleak Madrildik oroitarazten digunez erdara klaruan...

“El euskera es una lengua del siglo XXI, es una lengua europea moderna y, por tanto, tiene el mismo derecho que las demás a ocupar el lugar más relevante posible en todos los ámbitos de nuestra sociedad occidental contemporánea”.

Eta gure hizkuntzaren maila eman behar dugu orain euskaldunok geure buruzagi politiko eta kulturalen aurka: euskara prest dago, ez da engoitik aurreindoeuroparra edo besteak ez bezalakoa, modernoa eta mendebaldekoa da, araberako estatusa eskatzen du, hots, autodeterminazio linguistikoa bere ondorio guztiekin.

zuria ziguten beztu
ahoko hitza makestu
elurra zer den ikastearren
ginen berriz aldrebestu

Euskaldunok gure hizkuntzaz egin genezakeen ia dena, hartaz esan genezakeen oro, demokraziaren aitzikoa da. Horrelako juzkua egiten digu Historiak, bere kadira ugarietarik.

Zapalketa gogor bat ari gara kontatzen euskaraz egiten dugun aldiro.

“El manifiesto del PNV en su centenario afirma sin matices: “la lengua de nuestro pueblo es el euskera”, lo que resulta una declaración xenófoba”

Afrikarrari —atzo salbaia bihurtu zutenari— egun demokrata ez izatea leporatzen dioten jokabide berean digute ezarri nahi orain euskaldunoi (beren buruko) demokratek euskararen estatusa, arrazakerian bizi ez gaitezen. Azken finean, demokrata ez delako segitzen du salbaia izaten afrikarrak, eta euskara ahotan hartzen duen aldikal segitzen du euskaldunak xenofobia izaten.

Monotematikoak izan gitezke, langabetuari biktimarena jotzen duela esaten zaion arinkeria berdinarekin eransten ahal digute negartiak garela.

Ez ordea.

Gure hizkuntzaren historia hagitz bestelakoa da ondoan dauzkagun handietarik.

Hain zuzen, gure hizkuntzaren historia eta egoera ez dira konprenitzen ez bada kontuan hartzen gure gaineko hizkuntzek eduki duten rola errealitate linguistikoaren eraikuntzan.

Ondokoa genuena gaineko bihurtu digute.

Gu azpiko.

Errealitatea ez da hor egon delako dagoen zerbait.

Eraikitzaileak ukan ditu, eta begiak ezin harrapa lezakeena erakusten du hitzak.

“A nadie se le obligó nunca a hablar en castellano: fueron los pueblos más diversos quienes hicieron suyo, por voluntad libérrima, el idioma de Cervantes.”

Espainiako Erregeak esana Cervantes Sariaren zeremonian, 2001-04-23.

Erdaldunen multzoak hizkuntzaren bitartez inposatzen die gainerakoei arauaren definizioa, inozentzia primario baten gisan, “gauzak diren bezalakoak dira” esanez. Ez daki bere boterea hizkuntzaren unibertso sinboliko-praktikoan dela adierazten, eta unibertso hori (bidegabeko) legedi batek eraiki duela, eraikitzen duela. Erramun Osak jakinarazi digunez,

“Franko hil osteko demokrazia-aldian, 2009ko abenduaren hogeita hiru arte, askotan isilpean eta etenik gabe, 500 Agindu, Errege Dekretu eta abar jarri dira indarrean Espainian jardun-eremu desberdinetan, gaztelaniaren presentzia ez ezik, haren erabilera ere ziurtatzeko, behartzeko.”

Euskaraz, munduko gara egiten. Leku bat baldin badaukagu, hizkuntzak emana da. Euskaldunok baino hobeto dakite hori euskararen etsaiek.

Euskararen bitartez markatzen dugu muga eta lotura. Beste asko bezalako da gure mundua, anitz bestez egin dugu geure. Hori insoportablea da indeologia totalitarioarendako.

Horregatik daukagu leku bat munduan, geurea, hemen.

Egunero aldarrikatu beharra.

Egunero aldarrikatu beharra.

Kategorizatuta gaudelako.

Zeharbidez kategorizatzen du beti gehiengotuak, menderatzaileak. Ez du uste ez da ohartzen ez dakigu dakienetz gu ere bagarela munduan.

Aspaldi honetan usu entzun izan dugun legez, euskarak, euskal kulturak “erakarri” egin behar baldin badu, hauxe da gizartean txertatzen den mezua, toxina, pozoia:

1. Euskara eta euskal kultura ez dira erakargarriak.
2. Erakargarria erdara da, erdarazko kultura.

Antitesien joko zaharra dugu: horrela (ere) sortzen da ideologia arrazista, hizkuntzen kategorizazioaren bitartez.

Horrela bihurtzen dira lekuak izan behar luketenak zoko.

Kategorizatzailea ez da ohartzen ez du uste laster beteko dituela mila urte guretik hastandu nahi gaituela, eta oraino lortu ezinean dabilela.

Zer ote du gaztelaniak oker, ahaleginak egin arren ezin asimilatu izateko bere azpiko dauzkan euskaldunak? Zer ote dugu euskaldunok horren makur, behingo batean euskara utzirik gaztelaniaren ederra onartu ezin izateko?

Munduan beste asko bezala bizi gara geure hemen honetan.

Egizu kontu zuri buruzko zenbat hitz.

Egizu kontu hitzezko teilatupean bizi zarela.

Egizu kontu bestek esanda dakizula egunargia.

neguan zabal hondartza
promes galduen lorratza
zokora bota ziguten berba
oraino zokoan datza

Ukoa du eragile erdaltasunak.

Gaztelania edo frantsesa baino ez-katalanera ez-euskara ez-galegoa ez-bretoiera ez-kortsikera ez-okzitaniera litzatekeen leku linguistiko batean kokatzen dira maiz espainiartasuna zein frantsestasuna.

Eskolako eraztunaren helburua ez zen gaztelania ikaslaraztea, baizik eta euskaraz ez egitea. Umeari buruan sarrarazi behar zaiona ez da gaztelania, buruan jaso behar duena da ez duela euskaraz egin behar.

Hitz egitearen aurkako hitz egitea dira gaztelania, frantsesa.

Hizkuntza suntsitzeko gerraren froga fisikoa da eraztuna, ez metodologia pedagogiko oker bat.

Ez dute inor jipoitu gaztelaniaz oker egiteagatik, euskaraz ez egitea da gaztelaniak behar duena, euskara bera izan behar delako zigorra dakarrena: euskalduna ez bazina ez zenukeen zigor hau pairatu beharko ikasleetan alferrena izanagatik, gaztelaniaz lotsagarri eginagatik.

Eta euskaldunak euskalduna jipoitu izan du euskaraz egin duelako.

Eraztunaren erabilerak badu beste helburu bat, ezkutukoa, luzerakoa, izuarekin batera gorrotoa sortzen denez zigorra bitarteko: eskolako eta hizkuntzaganako aiherkundera, kulturaren ukoa.

Eraztunak dakarren makila, klase apalen atzeramendua areagotzeko metodoa da: euskara ez dadila inoiz hizkuntza izatera iritsi, arloteok ez dezatela pentsa ahal esaten duten horretan, ez, baina pentsatzen dutena ere ez dezatela esan ahal bestean, gurean, boterekoan.

Elebidun analfabetoa bihurtzen da umea, analfabeto elebiduna izanen da bizi den artean.

Eskola neskametza kaserna emigrazioa, horra gaztelaniaren, frantsesaren Esnebidea euskaldunendako. Eta euskaldunek ez dakite, maisuak berak auskalo, gaztelaniaren eta frantsesaren inposaketaren ostean asimilazio politiko-ekonomikoa dagoela: izatetasun unibokoa, lekutasun egonkorra eskatzen dute, eta ez gaztelaniaz egiten duen multzo batean (ere) bizi ahal izatea: egitura hispano-frantsesek ezin dute identitate bakarra ez inposatu.

Ukatuak etsi egiten du batzuetan, amorratu egiten da bestetan. Oldartu egin liteke, apal bada apal.

Ukoak ukoa sortzen ahal du, ukoaren ukoa, dialektika.

Dominatzaileek, (besteren) hizkuntzak menosten dituztenok, ez diote dialektika esaten, nazionalismoa esaten diote, beraiek larratzen ez omen duten belar gaizto hori, murriztuok erain omen duguna.

Errepublika izan edo monarkia izan, estatuaren batasunaren izenean aritzen zaizkigu, baina ez dira (bestelakoa den) inorekin bateragarriak.

Bakartasuna dute helburu, bakartasun linguistikoa, inperialismoaren etxebarruko aldaera hori.

Nazionalismoaren sorreran, berdintasuna dago beti. Baina *Egalité* aipatuak ez du berdintasun soziala adierazten. Denok bat izateko behar den inposaketa da, berdintasun unidimentsionala, bestela ezin iritsiko garelako *Fraternité* ederrera.

Nazionalismoaren sorreran, *lengua común* kontzeptua dago, mintzatzearen berdintasuna. Komunitate bakarra gara. Hizkuntza bakar eta orokor horren dohaien atzean, *patria común* kontzeptua dago. Hizkuntzak aberria egiten du. Horrelakoak esaten ditu Javier Pradera akademikoak Latinamerikan, “El castellano es nuestra patria común”, Instituto Cervantes laguntzen duten multinazional espainiarrek gisa guztietako triskantzak egin ahal izan ditzaten Chilen eta Argentinan.

Madrilgo Ateneoan aurkeztu zen demokratarik demokratenen manifestuak ere, *Manifiesto por una lengua común* du izena.

Nola mintzo behar zaio kolonia metropoliari, periferia zentroari, nazioa estatuari? Bere hizkuntza ez beste batean. *Lengua común* hori, *lengua exclusiva* da, baztertzaila, *exclusivamente en castellano* mintzatu behar zaienez estatuari eta estatuzaleei. Kanpo uzten dituzte gainerako hizkuntzak.

Dagokion bezala esanda, *lengua común* hori *lengua excluyente* da.

herdoil gainera landurra
garabi lepo makurra
memoria bat kendu zidaten
nendin kateko zakurra

Kategoriak ezartzen dituen bilinguista izaten da askotan.

Bilinguista, elebakarra da oinarrian.

Onartu egiten du bestearen existentzia.

Tolerantzia da, eskubide hori dauka, inor onargarri izendatzekoa. Boterean da, nahiz berak ikusi ez.

Bilinguistak badaki bere hizkuntza dela subjektu soziala, eta ez bizi den gizarteko beste hori. Edo ez daki, baina segurtasun intuitibo hori dauka, inguruak ematen dio, gizarteak, eguneroko patxada linguistiko horrek. Boterearen banaketaren

isla da elebitasunaren aldekoa: status quo diglosiko honetan bertan ikusten du menderatuaren kidetasuna, lehen-kide-tasuna.

Ez zaio bururatuko kategoriak berrezartzen berrizartzen ari denik hemen eta orain erdaraz diharduen aldiro.

Erdaraz egin ahal izatea (eskubide) naturala da.

Euskaraz (bestek) egitea legezkoa da (orain).

Hizkuntza bi, eta ez parekatuak.

Batak bestearen leku guztietan egon behar du.

Horrela, besteak ez dauka leku propiorik egitura sozio-ekonomikoan.

Letonia independentea egin zelarik, 1991, letoniar jatorriko %100ek egiten zuen errusieraz, baina errusiar jatorriko biztanle letoniarren %3ak bakarrik egiten zuen letonieraz.

Besteak, gu gara. Gu besteak gara.

Horixe zaigu elebitasuna: gu izatea elebikoak.

“Lehen hitza euskaraz”.

Donostiako Ospitaleak 1992an abiatutako publizitatea da, beste alor batzuetan ere ikusten ahal da gaur egun.

“Lehen hitza euskaraz”.

Horraino iritsi gara.

Ezin egokiago islatzen du lelo horrek erdararen egoera larria: bigarren eta are hirugarren eta laugarren eta bostagarren eta zazpigarren eta hamaikagarren hitza izatera daukagu baztertua.

Oraindik orain Erlantz Urtasunek gogorarazi egin digu Etxepare Institutuko Zuzendariak esana hemen, Donostia euskaldungura honetan, erakundearen egoitza musterakoan: “Etxepare Institutuak gure kultura promozionatuko du, euskaraz egindakoa eta gaztelaniaz egindakoa”.

Egizu kontu noiztik gauden harremanetan euriarekin.

Egizu kontu munduak zenbat dakien.

Egizu kontu ez dugula inoiz ikasiko euskaraz egiten.

Egizu kontu aukeren kalkulu batean ez zenukeela euskalduna izan behar.

Egizu kontu kasualitate hutsa zarela.

Egizu kontu munduari ez diola buruak ematen mundurik ez izatea ere aukeren artean zegoenik.

basoak dira ospeldu
lizar orriak orbeldu
mendian bizi zetorren ura
ordokian da moteldu

Euskara ez da dialekto multzo bat.

Euskaldunduek apurtu egiten dituzte mugak, oasiak sortzen dituzte basamortuan, euskaldungura hizkuntzaren ahalak eta ezinak gurutzatzen diren puntua da, beste milaka puntu posibleren lotura.

Euskara kanpoan eta barruan dago aldi berean, euskaldun multzo trinkoetarik kanpo ere bizi da euskara. Horrek bihurtzen du ahul eta aldi berean integratzaile, geografia baten jabe.

Euskarak geografia bat osatzen du, dialekto guztien mugak, euskararen beraren mugak gainditzen dituena. Euskarak (beste) Euskal Herria osatzen du. Hori, euskara zonifikatzen dutenek dakite ongien, nafarrek bezala baskongadoek.

Gaza txipi askotan sakabanatua da euskara.

Eta nekez itzuliko da bereak ziren leku (bestek) okupatuetara.

Gaza horiek ez zirela inoiz euskararenak izan entzun eta irakurri ohi dugu euskaldunok. Iragana sortu, idealizatu egiten dugula.

Palestinarra sionista.

Gaza txipi horiek zipriztinezko mapa bat osatzen dute, mugagaitza, definigaitza, aldakorra. Ez daukagu, Flandriak bezala, muga linguistiko nabarmen eta zehatzik. Euskararen zipriztin batetik bestera mintzoa da lotura, jakina, baina hotsik gabeko ahoa da gurea, ez da entzuten ez ikusten, lupean dihardugu, sare konplexu eta mehean, erdaldunen eremuan gaudelako sakabanaturik, harresi bana inguruan.

Horrek egiten gaitu ilun uzkur zurrun, horrek egiten gaitu... kezkarri, zelatarri.

Harresiaren beste aldea ere, Euskal Herria delako.

Euskal Herria txipia da lurrez, hizkuntzaz da handi: euskaldunak bere burua problematizatzen duen aldiro egiten du hizkuntzago.

Hizkuntzak, euskara murriztu honek, egiten gaitu unibertsal. Paradoxikoa iduri lukeen arren, handiena izaten da probintzialismorik handiena, txipiok txipitasunetik dakigu ez garela munduan nagusi ibiliko, biztanle xume izateko jaio ginela, beste askoren eta bestelakoren arteko: “Munduan beste asko bezala”, “Munduan beste asko lez” formularekin hasten dira gure herri-ipuina.

Gure territoria euskaraz egin litekeen edozein gerizpe da, baina non ote da euskaldunok hartuko gaituen gerizpe hori? Non da lurrari herri esan geniezaiokeen lekua?

Euskal Herria terminoa geografia bati lotzen zaio.

Hiztunek egiten dute euskara herri eta herria euskal. Non egiten den euskaraz, han dugu herri bat, euskal herri bat. Gure lurra ez da hizkuntza, baina hizkuntzarena da lurra.

Lur hau, aldi berean zaigu handiegia eta murriztegia.

Handiegia, erdaldunen artean bizi garelako.

Murriztegia, gaitza zaigulako euskaldunen artean bizitzea.

Halako batean ordea Euskal Herria esan genion euskaldunok zapaltzen genuen lurrari, eta honenbestez ahalmen berezi hori hartu zuen lurrak, bertan sortu edo bizi denari zertan bat ematearena.

Hizkuntzak lurra landu eta lurrak hiztunak emanen balitu bezala.

Hizkuntzak ematen digu euskaltasuna, hala da, baina hiztunak multzotan biltzen dira —multzoetarik sortu dira hizkuntzak—, eta euskalduna edonongoa izan baliteke ere, hizkuntzari bizia bermatzen dion multzoak lurralde bat behar du, hots, euskara entzun eta esan eta ikusgarri izanen den geografia politiko bat: autodeterminazio linguistikoa.

Lurrak hiztunak eman ditza.

Hiztunak mundua landu ahal izan dezan.

sagasti bizar zuria
eman emeko euria
fabrikarako bidean zure
solas apal urduria

izar zaharren metala
zilarra balitz bezala
ez da erraza sutan erretzen
gezur iharren ezpala

Koldo Izagirre.
2010eko Abenduaren 1ean